

LAUGARREN ATALA: ERREGIMEN ZAHARREKO KRISIALDIA: XVIII. MENDEKO AZKEN URTEERATIK 1875ERA

Euskal Herriko historia korapilatsua, eta beraz, hura osatzen duten erakunde txikietakoa, horrela bilakatu da, hein handi batean, Aro Modernoaren amaieran zeuzkan ezaugarrien eraginez: alde batetik, burgesia liberala izugarri garatu eta berehala hasi zen landa-gizartearen aurkaritzan; beste aldetik, foruek iraun zuten, baina liberalismoarekin bateraezinak ziren. Denbora igaro ahala, hiri ekonomiari loturiko taldeen -talde horiek iraultza liberalaren buru ziren, monarkiaren aduana-politika bateratzailea euren negozioak apalarazten zituen arantzel-landa handia baitzen- eta erregimen tradizionalaren alde zeuden jauntxoek arteko borroka areagotu zituen krisialdiak lehendik sorrarazi zituen tirabirak, eta ekonomia tradizionala bermatzen zuten zutabeei eragin zien: nekazaritzari eta burdinolei. Horren ondorioz, bi zutabe horiek behea jo zuten, aspalditik baldintzatzen zituen atzerapen teknikoaren eraginez.

Gainera, XVIII. mendearen amaiera aldetik XIX. mendearen hasierara, zenbait zoritzarreko gerra jazo ziren, eta horiek guztiek nolako edo halako eragina izan zuten Leioan. Hasteko eta behin, horiek aztertuko ditugu.

GERRA GATAZKAK

1793an, Frantziako erregea gillotinan hil zuten herrialde horretan gertatu zen iraultza zela eta. Ondoren, Espainiak gerra deklaratu zion Frantziari, artean Borboien dinastiak gobernatzen zuen herrialdeari. Konbentzioaren Gerra izeneko gatazka horretan, berriro botere politikoa kontrolatzen zuten handikien taldeen eta iraultzaren ildoak onartzen zuen gutxiengo progresistaren arteko tirabira zaharrak berriro azaleratu eta are larriagotu ziren. Horren ondorioz, eraso egin zieten foruei, eta, zehatzago esanda, herri-ondasun asko saldu ziren militarren talde handiak bidaltzeak zekartzan gastuak ordaintzeko, lurraldea babestu behar baitzen frantsesen mehatxuaren aurka.

Zamakolada ere gatazka esanguratsua izan zen. Arratiako merindadeko foruaren eskribau eta alkate Simón Bernardo Zamakolak proposatu zuen portu askea eraikitzea, "bakearen portua" izenekoa (Godoy-ren omenez, Bakearen printzea) Abandoko elizatearen jurisdikzioan, eta Batzar Nagusiek proposamena onartu zuten dekretu bidez. Portu hark Bilbo hiribilduaren ekonomi hondamena izan zen, eta ondotik, hiribilduen eta eremu lauaren arteko areriotasuna nabaria izan zen, Zamakolak Godoy-ri laga baitzion zerbitzu militarra, portua erabiltzeko baimenaren truke.

Independentziaren Gerrak sorrarazi zuen frantsesen okupazio-aldian (1808-1814), hiribilduetako burgesia, erreformista eta liberala, Karlos IV.aren ministro-ohiak Mariano Luis de Urquijo eta José de Mazarredo almirantea buru zituela, José I.ari atxiki zitzaion. Gutxiengo hori saiatu zen euskal herritarren iritzia frantsesen kausaren aldera lerratzen, hiri eta landa eremuetako bizilagunen aurka. Handikiek eta

kleroak xaxatzen zituzten azkenak, eta, gainera, nahikoa suminduta zeuden gorantz zihoan krisialdi ekonomikoaren zioz. Hori dela eta, erlijioaren alde, ordena tradizionalaren eta moralaren alde altxatu ziren, hots, Fernando VII.ak ordezkatzeko zituen balioen alde. Bestalde, frantsesen okupazioa atzerriko inbasioetatik eta gehienek ulertzen ez zituzten ideia berriak indarkeriaz nor bere egiteko ezarpenetatik hartu zuten, baita foruari egindako erasotzat ere, zerga sistema berria ezarri baitzen garai hartan. Horren arabera, jaurerriak 2,3 milioi errealeman eman behar zituen, eta horietatik 4.918 errealeman Leioak eman behar izan zituen. Zerga presio hark Euskal Herriko herritarren altxamendua eragin zuen; hartarako, Leioako elizateak 30 soldadu ere eman zituen. Horietako asko Longa eta Jauregi "artzaina"ren agindupean borrokatu ziren. Bien bitartean, Cadizen Konstituzioaren oinarriak ari ziren finkatzen.

Konstituzioaldi horrek, baina, etena izan zuen 1814ko maiatzaren 4an, Fernando VII.ak absolutismoa ezarri zuenean. Fernando VII.ak 1830a arte gobernatu zuen eta haren erregealdian berriro biziagotu ziren liberalismoarekin fidatzen zirenen eta gehiengoaren arteko tirabirak, lehenek pentsatzen zutelako liberalismoak forua bermatzen zuela, eta bigarrenak erabat sinetsirik zeudelako foru pribilegioak babesteko erregimen absolutuak iraun behar zuela.

KARLISTALDIAK

Lehen gerra hasi aurretiko egoera

Lehen irakurri dugun bezala, Independentziaren Gerraren amaierak bizkortu zuen sistemaren hondamena: udalek, udal-mugarteetatik igarotzen ziren armadak hornitu behar zituztenez, zor handiak hartu zituzten, eta herri-ondasun ugari saldu zituzten horiei aurre egiteko. Jabe aberatsek, mailegu-emalleek, espekulatuzaileek eta merkatariek erosi zituzten ondasun haiek. Herri-ondasunei esker, ordea, baserriarrek doan lortzen zituzten ongarriak, egurra, gaztainak, larreak, lurra lantzeko eta ikatz egiteko sailak; horiek guztiak baliatu ezean, baserrietako ekonomia erabat zaildu zen. Gizatalde asko eta asko bazterreko jardueretan aritu behar izan ziren. Hori guztia, gainera, Mendizabalen desamortizazioaren (1836 eta 1837) aurreko beste desamortizazio batzuekin batera, gizartea antolatzeko bi eredu, eredu tradizionalaren eta liberalaren, arteko aurkakotasuna erabatekoa izan zen.

Hirurteko Liberalaren (1820-1823) ostean, gizartea hain zegoen ernegaturik, ezen, 1823ko ekainean, San Luisen Ehun Mila Semeez Fernandoren absolutismoa ezarri eta gero, Probintziako Aldundiak Boluntario Erregezaleen konpainiak eratzea onetsi baitzuen. Boluntario haiek Koroari eta foruei men egiten zieten, eta Leioa VII. konpainian txertatu zen. Gizon horietan funtsatu zen gobernu zentralak sustaturiko erreformismo liberalaren aurka aritu zen armada karlista.

Lehen karlistaldia (1833-1839)

Fernando VII.a hil ondoren, Isabel alabak izan behar zuen ondorengoa tronuan, 3 urte besterik ez zituela, Maria Kristinaren erregeordetzan. Handik 5 egunera, Felipe de Ibarrola teniente-koronelak Karlos printzea aldarrikatu zuen errege. Karlos jaunak ilobak baino koroarako eskubide gehiago

zituela⁶² arrazoitu zuen, eta "Jainkoa, Aberria eta Erregea" (hau da, erlijioa, aberriaren batasuna eta erregea denaren gainetik babestu behar zirela; azken batean, Erregimen Zaharra, eta geroago foruen alde egitea -atxikimendua lortzeko lema, 1835etik aurrera-) kontsigna erabiliz, irizkide guztiei armak hartzeko agindua eman zien. Euskal herritar askok, batik bat landa-eremuko maila apaleko aitoren semeak, kleroa eta herriko hainbat sektore karlisten alde agertu ziren, eskubideak galduko zituztelako beldurrez liberalek irabaziz gero. Liberalen kausa kristina edo isabelina izenez ere ezaguna zen, eta horren kide ziren gobernuak mesede egindako landa-eremuko oligarkia, industrian edo merkataritzan jarduten zuen hiriko burgesia, funtzionarioak, lanbide liberalak eta goi-kleroko kide bakan batzuk, klero sekularra herria bera.

Lehen karlistaldia Euskal Herrian gertatu zen batez ere; Zumalakarregik, gerrillen gerra, ezusteko erasoaldiak, martxak eta kontramartxak, segadak eta atzera-egite azkarren bitartez arrakasta nabariak lortu zituen, Nafarroa aldean, gehienbat. Orduan, jarraitu beharreko strategiari buruzko ildo bi agertu ziren karlisten artean. Zumalakarregik Gasteiz okupatu nahi zuen, eta berehala Madrilera abiatzea, gerra lehenbailehen amaitzeko, arerioei indarberritzeko denborarik eman gabe. Karlosen gortekoek gurago zuten Bilbo aberatsa okupatzea, horrela, nazioarteko aintzatespena erdiesteko. Azkena egitea erabaki zuten, eta "Bizkaiko dibisioa" osatzen zuten zortzi batailoi karlistetatik hirugarrenak, Leioa, Mungia eta Erandioko soldatuek eratuak, Bilboko setioan parte hartu zuen, harik eta jaurerriak errendizioa agertu arte. Bacon ingelesak honela azaldu zuen gerra gatazka hura, geroago Teófilo de Guiard-ek jasotakoaren arabera:

"5. eguneko goizeko lehen orduan, erreginaren tropak, eraso-zutabe indartsua eratu zutela, Asua ibaiaren gaineko zubia berenganatzen ahalegindu ziren. Zubira zuzenean oldartu beharrean, gerrillan zabaldu ziren eta tiro egin zuten noranahi. Aurrera jotzen ez zutela, karlisten jeneralak soldadu batzuk bidali zituen aurrera, ezkerreko hegala babesteko. Indar horren aurkako kristino batzuk bidali zituzten, baina karlista zuhaitzi batera alde egin eta besteak ez ziren eraso egiten ausartu. Liberalen tropek zubia utzi zuten, eta Erandio herrixkara abiatu ziren; karlistek, ordea, berehala zeharkatu zuten zubia eta eraso-zutabea eratu zuten, Espateroren lerroaren erdialdea mehatxaturik. Eremua liberalen zalditeriarako onuragarria izanik, eraso egiteko agindu zuen: orduan, ikusmin handia izan zen; zaldiak abiatu ziren ez lauhazkan, ez trostan, ez urraska; astiro iritsi ziren etsaiak zeuden 200 bat yardaraino, eta haiekin borrokan hasteko prest zeudelarik, atzera egin zuten. Espartero sumindurik zegoen, eta laguntzailea bidali zuen eraso egiteko erabateko agindua emanda; horretan, apur bat azkarrago ibili ziren, baina karlistek, aurrekoan gertaturikoa berriro ere jazoko zela iritzita, ez ziren larritu ere egin, eta besteak iritsi arte itxaron zuten, eta apurka-apurka alboratu ziren; zutabea, beraz, sable-kolperik eman gabe desegin zen. Hori eginda, eta beste borrokatxoren baten ostean, Esparterok dibisio aurreratua itzultzeko agindu zuen, Erandio hustu eta atzera egin zuen, Axperaino. Antza denez, adore handirik gabe borrokatu ziren alde biak eta antzeko galerak izan zituzten 400 edo 500 gizon); hala ere, egiatan, karlistek lortu zuten garaipena, etsaien mugimenduari aurka egin baitzioten hiribilduari laguntzeko".

Bien bitartean, liberalen beste zutabe bat Nerbioiaren ezker aldean zebilen, Bilborako bidean, baina karlistek gogor egin zieten eta Portugaletera alde egin behar izan zuten arin. 1836ko abenduan, Espartero jeneralak, liberalen okupazio-zutabearen agintean eta itsasadarra Lutxanatik zeharkatu zuenaren laguntza zuela, ia hilabetean bildu zituen tropak Leioa eta Erandioko muinoetan, Deustu parean zegoen Banderas mendian eraso egiteko, Deustuan baitzegoen Bilbo setiatzen zuen karlisten gotorlekua. Ondizko Atxutene jauregia erabili zuten koartel nagusi, eta apaingarrien nahiz kontu liburuen arpilatzeak nahiz triskantzak egin zituzten Ondiz Erremedioetako Ama Birjinaren basilizan, parrokiako liburueta ondo jasota dagoen legez, honakoaren aipu egiten baitute "okupazio zutabea, herri honek pairatu zituen arpilatzeetako gertaeretan"⁶³. Basetxe batzuk ere arpilatu eta erre zituzten. Handik denbora laburrera, Bilboko setioa eten egin zen. Karlistek porrot asko izan zituzten Zumalakarregi karismaduna 1837tik hil zenetik aurrera; hala, 1838ko abuztuaren 31n, Maroto karlistak eta Espartero liberalak Bergarako Hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen hori zela bide, gerra amaitu zen eta aukera utzi zuten Euskal Herriko araubide politiko-administratiboak gerora izan zituen aldaketak egin ahal izateko.

Gerren arteko aldia (1839-1872)

Lehen gerraren ondoren, irabazleak galtzaileekin grinatu egin ziren: "Honakoaren bila gabiltza" zioten agindu asko eman zituzten, karlismoari atxikitakoen zerrendak egin, eta gizabanako susmagarri batzuei deitu zieten deklaratzera joan zitezten. Gubernuko eta armadako agintariek zeinahi matxinadaren berri ematen zuten eta erreboltaiak atxilotzea eskatzen zuten, gerra amaitu eta berehala, baita gerra amaitu zenetik luzarora ere, hala nola, 1860ko apirilaren 18an, non ondokoa eskatzen zuten:

"probintzia honetatik harat-honat zebilen karlisten sorta desegin egin dugu (...) eta buruzagiak nahiz sustatzaileak besterik ez dira geratzen. Horiek, legeen arabera jaso behar duten zigorra saihesteko, eremu honen lakarraz babesturik alde egiten dute, haien krimen azpikariak atzerriko herrialde batean ostentzera. Zuk eta auzotar guztiek poz har dezazuen jakinarazten dizuet, baina gomendatu egin behar dizute bai zuri, bai besteei, alderrai dabiltzan horiek jazartzeko ardura eta parte-hartze bizia (...) hori dela eta, bazterrean erantsi ditugu orain arte horiekin nahasita daudenen izen eta ezaugarriak."

Politikaren ikuskeratik, esan dezagun Esparteroren gobernuak iraun zuen bitartean (1830-43), 1841eko urriaren 29ko dekretuak ezabatu zituela hiru euskal lurralde historikoetako politika eta administrazio berezitasunak: udalek eskumenak galdu zituzten, Batzar Nagusiak eta foru baimena desagertu ziren, eta aduanak kostaldera eta mugetara aldatu ziren. Erregeordetza amaitu eta Isabel II.aren erreginaldia hasi zenean, moderatuek hainbat jarrera hartu zituzten euskal auziaren aurrean, arrazoi politikoak, ideologikoak eta alderdikoiak zirela tarteko, eta foruak leheneratzen hasi ziren (1844ko uztailaren 4ko Errege Dekretua). Horrela, bitariko aldundiak ezarri ziren, hiru hamarkadetan: alde batetik, probintziako aldundiak hautespen zentsitarioz aukeratzen ziren, eta liberalen erregimenaren iraupena bermatzen zuten; bestetik, foru aldundiak izendatzen zituzten Batzar Nagusiek eta administrazio, ekonomia eta politika eskumen handiak zituzten. Handik aurrera, 1872ra arte, politika eskumenak murriztu ziren

heinean, ekonomia eta administrazio autonomia handitu egin zen. Ordura arte "borondatezko dohaintza" horiek nahitaezko bihurtu ziren. Horregatik, Lehen Karlistaldiaren ondoren, leioaztar batzuk Amerikara joan ziren, batzuetan soldadutzatik libratzeko fidantza eta guzti utzita, hala nola, Eusebio de Aresti⁶⁴.

Aipatzekoa da 1868ko irailean "La Gloriosa" (Loriatsua) izeneko altxamendua egi zutela liberalek, eta Isabel II.a tronutik kendu ondoren, Seiurteko Iraultzailea hasi zela (aldi horretan, Amadeo de Saboya izan zen erregetzan, 1871 eta 1873 artean), eta, azkenik, Espainiako lehen Errepublikan (1873-1874), lehen hauteskunde demokratikoak egin zirela, gizonezkoen hautespen unibertsal eta zuzenaz; Bizkaian, erabateko garaipena lortu zuen katoliko-karlisten hautagai-zerrendak.

Ekonomiari dagokionez, errotiko eraldaketak izan zituzten ekoizpen egiturek. 1841ean, Boluetako Santa Ana sozietatea sortu zen, hots, euskal lurraldeko lehen burdingintza lantegitzat jo dena; 1846an, berriz, Ybarratarrek Mesedetako Ama Birjinaren Fabrika izeneko baltzua eratu zuten. Horiekin biek, itsasadarraren ezker aldeak industria-aldiari lotu zitzaion. Ontzigintzak ere goraldia izan zuen garai hartan, baita meatzaritzak ere, eta eraldaketa esanguratsuak izan zituen azkenak 50eko hamarkadan. Sasoi hartan, 1855ean hain zuzen ere, Bessemer-ek altzairua ateratzeko prozedura berria asmatu zuen, fosfororik gabeko burdinaren bitartez. Hori dela eta, minerala esportatzea debekatzen zuen foru agindua 1863an indargabetu ostean, Bizkaia izan zen Ingalaterrarako esportatzaile nagusia. Bideak eguneratzeko lehen ekimenak ere ageri ziren. Gari-salmenta eta manufakturen inportazioaren eraginez, zenbait merkataritza-konpainia eta banketxe sortu ziren. Ekonomiaren goraldiaren ondorioz, demografia izugarri hazi zen, baina beste gerra batek berehala moteldu zuen.

Bigarren Karlistaldia (1872-1876)

Lehen gerraren ostean, euskal karlismoa eta liberalismoa apaldu ziren. Karlismoak liberal moderatuen eredu kontserbadorera ohitu ei ziren, eta liberalismoak baliatu zuen besteen kudeaketa-modu egonkorra, negozio burgesak egin ahal izateko. Nolanahi ere, foruzaletasunak bizirik zirauen, eta askotan azaleratzen zen berez ekitaldi eta ospakizun jendetsuetan. Lehen esan bezala, ordea, 1868tik aurrera azpiegitura iraultzaileak oinarriak landu zituen karlistak berriro matxinatzeko, hasieran, hauteskunde eta propaganda bidezko borrokaren bidez, baina orduan ez zuen Erregimen Zaharraren alde egiten, ezpada, berriro ezarri gura zuten, artean nagusi zen sistemaren aurka. 1869ko konstituzioak monarkia konstituzionala aldarrikatu zuen Amadeo de Saboyaren alde (1870-1873), eta boterera iristeko legezko bide guztiak itxi zizkien karlistei. Karlistak galtzaile atera ziren 1872ko hauteskundeetan, eta armak harturik matxinatu ziren, are oldar biziagoan Lehen Errepublika aldarrikatu eta gero.

Euskal gizartea lehen baino nahaspilatsuagoa zen. Aurreko borrokaldiko leloari eutsi zioten karlistek, eta haiekin batera sartu ziren soldadu nekazariak eta hiriko zenbait sektore, hala nola, burgesak, profesional liberalak eta langileak. Liberalen armadan defentsiban zegoen, eta gotorlekuetan itxaron zuten, landa-eremua karlisten esku utzita. Horiek euskal lurralde eta Bizkaiko zatirik handiena mendean hartuta zuten, Bilbo eta Portugalete izan ezik. Gerran, garrantzi handikoa zen uniformea behar bezala janztea, soldaduak zein alderditakoak ziren jakiteko. Hargatik, 1873ko apirilaren 16an, Sebastián de Gorordok, Iparraldeko Errege Armadaren Mungiako barrutiko komandante militarrek 40 txapel urdin ilun eskatu zituen, baina hil erdi igarota ere ez zituen jaso.

Karlistek bateriak egin zituzten Areeta eta Leioako goialdeetan (horietako bat "La Boronita" herri-izenez ezagun den lekuan, Gazteluetan), eta handik, Patero koronelaren agindupean, Portugaleten setiaturik zeuden liberaleri eraso egin zieten 1873ko uztailetik. Pirala historialariaren arabera, 1873ko abuztuaren 10ean, Gorordo komandantearen agindu bati jarraiki "Karlistek Lamiakoko zubia ere (Udondoko hiltegiako zubia), suntsitu zuten, baina hori ez zen gertatuko itsas armada itsasadarrean utzita izan ez balute, hantxe fusilatzen baitzituzten ontzietan zihoazen bidaiariak. Karlistak ibai barreneko komunikazioa eragozten tematu zirenez, bandera gorriak ez zuen babeserako balio. Izan ere, zaurituak zeramatzan ontzi batean agertu zutela, horren aurkako erasoak are bortitzagoa izan zen". Portugalete setiaturik zegoen eta inork aguntzarik eman ezin ziola, 1874ko urtarrilean errenditu zen. Horrela, Bilbori laguntzeko aukera guztiak baztertu zituzten. Baina maiatzaren 2an, Concha jenerala buru zutela, liberalek Bilbo askatu zuten karlisten setiotik, eta posizioak hartu zituzten Abran (Algorta) eta itsasadarraren eskuinaldean: Artatza eta Gazteluetako gotorlekuak eraiki zituzten Leioan 1874ko udan, besteek Portugalete berriro ere ez setiatzeko. Lehenengoa Artatzen altxatu zuten Asuatik Avanzadaraino doan errepidea zelatatzeko. Haren harresiaren hormatal batek oraindik irauten du, eta gotorlekuan bizi izan zen urte askotan Lucas Bilbao leioaztar ezaguna; Hori dela eta "Lucasen gaztelua" izena eman zioten. Gazteluetako gotorlekuaren aztarnen gainean, Antonio Mentxaka ontzi-egile jaunak bere etxea eraiki zuen 20ko hamarkadan, eta, gaur egun, Gaztelueta ikastetxearen egoitza da. Gotorlekuak eraikuntza sendoak izan ei ziren, lubanarro eta kanoidunak. Ondizko baseliza ere gotortu zuten, eta inguru horretan, karlistek egin zuten lubakiaren aztarnak egun ere antzeman daitezke. 1875eko martxo eta uztaila bitartean, leioaztar askok eta ondoko herriotako biztanleek (Erandioko orgari batzuek kasu) Ondiz eta Algortako gotorlekuetan behar egin zuten.

1875eko apirilaren 12ko gauean, ezustean atzeman zuten Axpeko gotorleku liberala, baina karlistek kokaleku horretatik alde egin zuten, Leioako gotorlekuetatik etor zitekeen erantzunaren beldur zirelako. Izan ere, urte horretako apirilaren 27an, Leioan zebiltzan karlisten destakamentuko komandanteak Ondizko baseliza -hango lekua hartuta zuten- husteko agindua eman zuen. Azkenik, karlistek galdu zuten bitarteko eta gizon gutxiago zituztelako.

Gatazka horrek hainbat ondorio ekarri zituen berehala:

Leioako biztanleen eta udalaren ekonomia erabat ahitu zen, alderdi biek ere sarritan eskatzen baitzituzten ogia, okela eta ardo-anoak, bai eta egur eta lasto hornidurak ere. Gotorlekuak eraikitzeko eta beste borroketan ohikoak ziren beste jarduera batzuk egiteko gizonak ere eskatzen zituzten, eta, hortaz, lurra lantzeko eguneroko lanak etenaldi asko izaten zituen.

Bizkaiko Foru Aldundiko Agiritegian aurkituriko dokumentuetan, tropei 1837-1874 aldian egin zizkieten horniduren bonu, ordainagiri eta beste egiaztagiri asko aurkitu ditugu. Horiei guztiei esker, jakin dugu Leioak 14 gurdi egur, 12 arroa lasto eta 2 lakari gatz eman zizkiola Bizkaiko hirugarren batailoiaren VI. Konpainiari, Lehen Karlistaldian, abenduaren 3tik 17ra, Udondoko aurreneko taldearentzat. Portugaleteko hiria gotortzeko gastuen zati bat ere finantzatu zuen, 1837ko urritik 1838ko abendura arte.

Bigarren Karlistaldian, Karlisten alderdia Leioan finkatu zen, hain zuzen ere, Iparraldeko Errege Armadaren Durangoko batailoiaren III. eta V. konpainiak. 1873ko maiatzean, 104 soldadu karlista zeuden Leioan. 1874ko urtarriletik martxora, soldaduentzako ogi, ardo eta okela anoak, kandelak eta egurra, eta zaldientzako (koronel, kapitan eta ofizialen zaldientzako) lasto, arto, garagarra eta zahia anoak aniztu egin ziren. Tropek, mantenua ez eze, gerrako agiriak idazteko pleguak eta lumak ere eskatzen zituzten; era berean, zaurituei arreta egiteko kanpainako ospitaleak egoera onean egon zitezten, gizon-emakumeak eta bitartekoak ere eskatzen zituzten. Gatazka horrek iraun zuen bitartean, zaurituen ospitalea Areetan egon zen, eta ospitale horretara koltxoiak, burusiak eta izarak eroateko mikeleteek Leioara eta Leioatik. Askotan, elizatearen ekoizpena ez zen nahikoa auzotarren eta soldaduen beharrezkoak asetzeko, baina, arrazoi horrengatik ezin ziren salbuetsi armada hornitzetik; orduan, alde edo moldez lortu behar zuten tropek behar zuten gauza oro, eta, horretarako, Algorta, Portugalete, eta Mungiako merkatuetara, batik bat, joaten ziren. Horniduraren kostua bere gain hartzeaz gain, salgaiak garraiatzeko eta garraioa egiteko erabiltzen ziren edukiontzien (esate baterako, artoa eramateko zakuak) kostua ere ordaindu behar zen. 1875ean, Ondizko destakamentu karlistak bi gauza eskatu zituen: alde batetik, bideak estaltzen zituzten sasiak garbitzea, eta bestetik, 18 urtetik beherako mutilak gotorlekura joan zitezela lotara, indar liberalek ez harrapatzeko. Zenbaitetan, eguneroko zereginetatik aldentzen zituzten lanak egiteaz libratzen ziren leioaztarrak; esaterako, 1875eko uztailaren 26an, non Bizkaiko dibisioaren 2. brigadako ingeniarien ataleko buruak Ondizko Leoncio salbuetsi baitzuen gotortze lanetara orgarekin joatetik "Ondizko baselizatik hurbil zituen lursailetan kalteak izan zituelako".

Udal kutxak husten ziren heinean, udalak gerra kredituak eskatu zituen hainbat alditan. Bizkaiko erakundeak, ahal izan zuten neurrian, udal gastuak itzultzen saiatu ziren, eta kreditu horien egiaztagiriak aurkezteko eskatu zuten 1851, 1870 eta 1873an. 1894ra arte ere gerrako hornidurak ordaintzeko kredituen gaineko inprimakiak bidali ziren udalerrietara.

Apurka-apurka, ekonomia berreskuratuz joan zen gerrak hautsitako egonkortasuna, eta, bake-garaietan, merkataritzan, meatzaritzan edo errenten bidez lorturiko mozkinak beste arlo ekonomiko batzuetan inbertitu ziren. Horrek esan nahi du industrializazioa bultzatu zuen enpresaren inguruko kultura behin betiko gauzatu zela.

Gerra guztietan gertatu ohi denez, garaileek garaituak jazarri zituzten, eta Leioan ere horren arrastorik egon zen. Liberalak atera ziren garaile Bigarren Karlistaldian, eta arerioen alderdian izena emanda zuten guztien zerrenda⁶⁵ eskatu zuten, horiek erbesteratzeko, ondasunak bahitzeko eta haien familiakoak atzemandako eremutik kanporatzeko asmoz. Batzuek ez zuten bahitzeko ondasunik ere, eta zigorrak kentzeko eskari ugari egin zen. Hori dela eta, erbesteratze batzuk behar behera utzi zituzten. Gerra ondoren, bizileku finkorik gabe harat eta honat zebiltzanen gaineko kontrola areagotu egin zen, eta erakundeek aldi oro estutzen zuten elizatea tropa nazionaleri emandako hatu edo fardelen nahiz preso eta ibiltari txiro eta ezinduei emandako laguntzaren gaineko kontuak emateko, baita zorrak ordaintzeko ere. 1896an, erakundeek ezarri zuten pertsona horiek guztiak ondoko probintziako lehen mugako geltokira eramango zituztela, eta elizateak 0,50eko pezetako sorospena emango zuela eguneko.

Monarkia berrezarri zen 1874an, Alfontso XII.a errege izan zela, eta aldi baterako, Espainiako estatua egitura politiko bateratzaile eta zentralizatzailea bilakatu zen. Horrek, jakina, eragin handia izan zuten foru erregimenean.

Foruak indarrean egon ziren arestian kontatu dugun bigarren karlistaldia amaitu zen arte, eta horren bereizgarria zen monarkia absolutuko ingurune politikoan bizirik irautea, oinarri hartu zituen Erdi Aroko itunen aldean, oso bestelako teoria politikoak zerabiltzala. Baina foruak kolokan jarri ziren une askotan. 1814an, Fernando VII.a tronura itzuli zenean, foruaren aurkako eraso zuzenak hasi ziren. Karlistaldian bertan, 1837ko konstituzioak ez zien biderik ematen eskualdeetako berezitasunei. 1839ko urriaren 25eko legea zela medio, honakoa arautu zen "Baskongada eta Nafarroako foruak aintzat hartzen dira, monarkiaren konstituzio batasunari kalte egin barik", baina foruak balizko aldaketen pean ezarri zituzten, baina gerra latzaren ostean, kalterik txikientzat onartu zuten ezarpen hura. Alabaina, Bizkaiak ahaleginak eta bi egin zituen antzinako gobernua oso-osorik leheneratzeko.

Bigarren Karlistaldian, liberalek irabazi eta foruak indargabetu zituzten (1876ko uztailaren 21eko legea) eta Gernikako batzar-etxeari giltza eman zioten. Lege hori zela bide, Leioa udal araubide berriari lotu zitzaion. Bi urte geroago, euskal burges liberalek helburu ekonomikoak lortu zituzten, 1878ko otsailaren 28ko Errege Dekretuaren bitartez. Dekretu horrek Itun Ekonomikoa aldarrikatu zuen, eta horren arabera, gizonak eta dirua eman behar zitzaizkion estatuari. Probintziak ziren zergak ordaintzeko buru, eta kupo izenekoak ezarri ziren. Probintziak hari zegokion guztizko osoa ordaindu behar zuen, eta aldundiek udalei kobratzen zizkieten zergak. Estatuak tabako, justizia zama, meatoki eta garraioaren

gaineko zergak kobratzen zituen, eta denbora joan ahala, luxuzko galdi eta alkoholaren gainekoak ere biltzen. Azken batean, lege anbiguitasunak onura ekarri zion Bizkaiari autogobernuari dagokionez.

Amaitzeko, zer gertatu zen gerra eremuan aurrez aurre egon ziren ideologia politikoekin? Alfontso XII.a gerra eremuan bertaratu zen, gobernuak presioa areagotu zuen karlistengan, eta liberalek Montejurran garaitu zituzten. Gertaera horiek guztiek Don Karlos erregegaiaren patua gogor gaztigatu zuten, eta 1874ko otsailaren 28an erbestera joan zen. Hala, XIX. mendearen azken urteetan eta XX. mendearen lehenengoetan, ideologia hori hiru ildotan banatu zen: integrismo politiko eta erlijiosoa, moderantismoa eta etnien oinarritzen zen lehen nazionalismoa. Beste alde batetik, liberalek ere hainbat taldetan banandu ziren: liberal foruzaleak edo euskalerrriakoak, Ramón de la Sota y Llano buruzagi zutela, nazionalismo jaioberriaren alderdiari atxiki zitzaizkion; beste talde bat errepublikazaletasun eta sozialismoari lotu zitzaizkion, eta hirugarren taldeak faxismoaren alderdiarekin bat egin zuen. Dena dela, aurrerago jorratuko dugu sakonago gai hau.

Eliza

XIX. mendeko eliza aurreko mendeetako baino txikiagoa eta txiroagoa zen. Gainera, lehen aletu ditugun gerra-gertaerek elizaren oinarri ekonomikoa astindu zuten, eta liberalen antiklerikalismoak sarritan eraso egin zion arauzko kleroari. Gizartea sekularizatu egin zen, baina oso motela izan zen bilakaera:

Botere zibilak aurrea hartu zion Elizari -behinik behin, ekonomia arloan- 1801etik aurrera. Urte horretan, sakristia berria eraikitzen hasi ziren Leioako San Joan elizan. Urte horretan, indarrean hasi zen Errege Altxorrari "detxemaren errege bederatzirena" izenekoa erantsi beharra, hau da, detxemaren 1/9 (erretoreei zegokiena izan ezik), nagusiari (batzuetan Mortarako markesa, eta beste batzuetan Ordóñez de Barraicúa jauna) eman beharreko hamarrenaren seirenaren gainean. Ekarpen hori 1821a arte egon zen indarrean.

Gerra gatazkak aniztu eta erregearen kutxak hustu egiten ziren neurrian, udalerrri eta elizateetara jotzen zuten, dirulaguntza eske, eta horrek liskar ugari eragin zituen elizateekin. Independentziaren Gerra amaituta, elizateek uko egin zioten Elizaren detxemak eta hasikinak ordaintzeari, eta ukatze hori auzibideetara eramane zuten elizakoek. Udaletako eta parrokiako kutxetan ohikoak ziren lapurreten eraginez, 1813an, Leioako San Joan elizak zilarrezko gurutze bat saldu eta latorrizko bat erosi behar izan zuen. Lehen Karlistaldiaz geroztik, Madrilgo gobernuak Desamortizazioaren Legea izeneko egitasmoa aztertzen hasi zen. Hemeretzigarren mendeko liberalismoaren kontsignak askatasuna eta liberazioa ziren, eta, jakina, horiek ez zuten gizabanakoak besterik ukitzen, baita lursailak ere. Hala, lursail guztiak libratu behar ziren Erregimen Zaharrak ezarritako mugetatik, jabetza pribatuaren sorrerari heltzeko. 1837ko uztailaren 27an, Klero sekularraren ondasun guztiak nazioko ondasun bihurtu ziren, eta horiek guztiak besterenganatzen hasi ziren 1840tik aurrera, %6 urtean. Hori zela eta, 1842an, parrokiak 1.000 erreal jaso zituen seihilean behin udalaren kutxetatik. 1851ko Konkordatuaren bidez, Elizak uko egin zien desamortizaturiko ondasunei, betiko zuzkidura baten truke, Estatuaren

aurrekontuaren pentzudan, gurtzari eta kleroari eusteko. Orduan, klero sekularrak funtzionario edo bilakatu ziren. Elizari emateko zen zuzkidura hori sei multzotan sailkaturik zeuden zergapekoen artean biltzen zen. Hala ere, bidegabetzat jo zuten sailkapena eta kexa asko agertu ziren⁶⁶. Beste alde batetik, kleroa ere ez zen biziki pozik geratu, eta horrek ere behin eta berriro agertu zituen kexak, 1860 eta 1881 bitartean, udalak 37.000 erreal baino gehiago zor zizkiolako⁶⁷.

Azken batean, desamortizazioa nobleen, eliztarren eta udalekoen ondasunak besterenganatzea besterik ez zen izan, herrialdearen ekonomia ez hondatzeko. Edozelan ere, nekazaritzaren egitura aldatzeko helburuak porrot egin zuen, eta lursailen jabetza banatu beharrean, landa-eremuko boterea mendean hartuta zuten oligarkei, espekuladoreei eta udalen hartzekodunei ahalbidetu zien ondasunak handitu eta horiek metatzea.

Karlistek lehen gerra galdu zutenean, boterea eskuratu zuten liberal moderatuek konkordatu sinatu zuten Elizarekin 1851an, botere batak besteari legitimazioa aitortzeko. Gobernuaren moderantismoak Eliza bereganatu zuen, eta foruzaletasuna berretsi 1852an. Izan ere, urte askotan ekin eta ekin ibili ondoren, Gasteizko elizbarrutia eratu zen, eta hiru euskal lurralde historikoak bildu zituen. Bederatzi urte geroago Vatikanoko Kontzilioa izan zen.

Horren garrantzizkoak diren gai horiez landa, gaur egun funsgabeak irudituko zaizkigun beste batzuei ere erreparatzen zieten, garai hartan, berebiziko garrantzia baitzuten parrokiaren eguneroko jardueran. Denboran atzera joanda, 1802ra, protokoloak -horren pisu gutxiko gai batek, gure aburuz- auzibidea ekarri zuen, erlijio-zerbitzua auzoetan zelan eman behar zen: badirudi San Joan elizako abadeak Ondizko baselizan ere aritzen zela, eta meza bana egiten zuen leku horietan. Bigarren abadea izan zenean, biek ere eman behar zuten meza Ondizen⁶⁸.

1828an, Leioako parrokoa Deustura joan zen, eta hantxe hartu zuen Millán López Dábalos y Larrea jaun bisitariak. Horrek, bataiatuen liburuak aztertu ostean, iradokizun xehe-xehe batzuk egin zituen tintaren kalitate eta kaligrafiari buruz, eta iruzurrak saihesteko, zuriunerik ez zela egon behar adierazi zuen.

Cipriano Juárez y Zarzosa jaunak geroago egin zuen bisitaldi batean, 1856an, ezarri zuen deitura ipini behar ziotela ume abandonatuari. Izen hori bataioko elizarena berearena herriaren izan zitekeen.

1872an, liberalen aurkako zen kleroak herrian horrenbeste eragina izan zuen Bigarren Karlistaldia hasi eta gutxira, Leioako hilerria handitzea erabaki zuten Leioako José Ramón de Aketxe y Agirremota filantropoaren ekimenez. Jaun horrek lehenago ordaindu zituen udaletxe eta Elexaldeko ikastetxearen obrak. Lehen sarreran zegoen oroitarri hau San Joan elizako gangan dago orain, eta honako hau dio.